

ataria

Joxean Orbegozoren 'arrakastak', Leidorren

Turismoa
*Adunaren
Grazia,
baliabideez
horniturik*

Historia
*Bigarren Gerra
Karlistaren
kronika
Tolosaldean*

Inauteriak
*Inauteri festa
herrikoei
hasiera,
Lizartzakoekin*

2016-01-22
430. zenbakia
107.6 fm - 105.0 fm
www.ataria.info



GARAZI



LORADENDA

Renigio-enea • Ernio Bidea 1 behe • 20159 Zizurkil
Tel.: 943 693 408

ataria

bertso **jaialdia** 2016

Atarikideak:

Erreserbatuak dituzuen sarrerak
leihatilatik hartu ditzakezue
larunbatean 17:00etatik aurrera

Urtarrilak 23 • LARUNBATA • 18:00^{etan}
Tolosako Leidor antzokian

AMASA- VILLABONAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Euskalduna, denona eta denontzat
Matrikulazio epea: urtarrilaren 25etik otsailaren 5era



Feming ikastetxea (2-12 urte)

Otelarre 35 ☎ 943 69 14 13
Arroa z/g ☎ 943 69 35 12



Ernio-bea ikastetxea (12-16 urte)

Otelarre 35 ☎ 943 69 37 33

URTARRILAK


26

BILERA INFORMATIBOA:

17:00tan
Ernio-bea ikastetxeko liburutegian
ARRATZAIN

URTARRILAK

26



PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
EGUNEROKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA



**INAUTERIETAN
MENU BEREZIA**
Erreserba egiteko:
943 67 42 77

Urrope z/g 20491 • LEABURU • Tel.: 943 67 42 77 • ostatua@ostatua.com

025.77515.LL.G.

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197€

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • **TOLOSA**

Gure betaurreko
guztia **bilduma**
berrietakoak dira



MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Ezpala eta besteak aurrera!

Estreinatu dugu urte berria eta horrekin batera etorri da aste honetan 2016 Kultur Hiriburutza Donostiara, guztiok harrapatuko omen gaituen hiriburutza, baita Gipuzkoa eta Euskal Herria ere. Eskualdeko hainbat txokotan ospatu den San Sebastian egunarekin batera etorri da izendapena, Europar Batasunaren bandera eta ereserkiarekin batera, eta honi egindako txistukada ozenak lagunduta, hiriburutzaren jatorrian dagoen Europar Batasunaren politika sozioekonomikoak salatu nahi zituen txistukadarekin.

Sentipen desberdinak sortzen dizkit hiriburutzak, Donostiako Piratek kaleratu duten oharrean islatuta topatu ditudanak. Bertuteak ikusten dizkiote hiriburutzari, kultur sortzaile hainbatentzat plaza eta erakusleihu izango delako eta «alternatibo» edo «kritiko» izan daitezkeen proiektuak barnean biltzen asmatu duelako. Baina kultura anitz guztiak kontutan hartuko ote direnaren kezka sortzen da aldi berean, boterea duenak erabakitzen duelako kulturen arteko elkarbizitza arauak zein diren. Eta Kortxoenea gaztetxearen eraisketa oso presente dugu askok.

Ez nuen Kortxoenea barrutik ezagutzeko aukerarik izan baina gaztetxe edo gune autogestionatu bateko kide

izan denak badaki zer den proiektu horrek ematen dion ahalduz indibidual eta kolektiboa eta honek botereari sortzen dion dardarizoa. Zer esango diegu Ezpalako kideei. Udalak bizkarra eta ertzainek egurra eman diena. Baina argi diote egun hauetan bizitutakoa, egindako lagunak eta bildutako indarra ez diela inork kenduko. Bejondeizuela!

Gogoan ditut oraingo eta aurreko Bonbereneetako hasierako okupazio egunak, ez zait egokitu Otsabi barrutik

ezagutzea baina bai bere barruan egotea, Inpermutz gozatzea edota horma arteko espazio beharrik gabe sortu zen Txapin Festan buru belarri ibiltzea. Potenteak dira Iruñeko Euskal Jai edo Bilboko Kukutza barruan sentitutakoak edota eskualdean bertan ditugun Ibarra, Alegia edota Anoetako gaztetxeetan bizitutakoak. Mugimenduan dauden gazteak eta pertsonak, kultura aurrean jartzearen zain egon gabe kultura egiten, sortzen ari direnak, aisialdi

hutsetik haratago eraldaketa soziala bul-tzatzen ari direnak, izan okupazioaren edota beste bide batzuen bitartez. Guztiak zilegi, kontutan izatekoak eta bere aniztasunean aberatsak. Kultura zer den galdetuta horrela erantzun zuen Xabi Paya Donostia 2016eko Kultur Programaren zuzendariak elkarriketa batean: «*Naturara berez gertatzen dena da, eta kultura, gizakiak egin duen gainerako guztia. Gizatalde bat osatzeko, antolatze-ko, elkar ulertzeko egon litezkeen balio, sinesmen, portae-ra, eta abar guztiek osatzen dutena*». Kultura garrantzi-tsuegia da besteen esku uzteko. Ezpala eta besteak aurre-ra!



EIDER OLAZAR
ELDUAIEN
INFO7 IRRATIKO
KAZETARIA

Sentipen desberdinak sortzen dizkit hiriburutzak, Donostiako Piratek kaleratu duten oharrean islatuta topatu ditudanak

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L. **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Eneritz Maiz
KUDEATZAILEA: Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.info **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.info
IRRATIA: 943 69 80 38 · 687 4100 33 · FM 107.6 FM 105.0 **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.info



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, S.L.-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txalorre

Tolosaldeko gizarte eragileak

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Joxean Orbeago

ARRANDEGI IBILTARIA IRITSI DA IRURARA

Jose Antonio Marurik goizero Ondarruko portuan jasotzen du arraina eta gero herriz herri partitu. Lea-Artibai eskualdean ibili izan da orain arte, gurera iritsi berri da. Asteazkenero izango da Iruran

Jon Miranda

Dena sei euroan, txino morun». Hitz horiekin zuzendu zen asteazkenean Maruri erosleengana.

Furgonetako atzeko partea zabaldu eta berdela, legatza eta txitxarroa ikus zitezkeen. «Aurreko astean hasteko asmoa genuen baina itsaso txarra zegoen eta ezin izan genuen etorri. Jendeari azaldu behar zaio, nahiz eta lehorrean eguraldi ona egon, itsasoan oso bestelako giroa egin dezakeela». Garaian garaiko arraina ekartzeko ahalegina egiten du Marurik eta Iruran lehen salmenta egunean legatzak izan du arrakasta gehien: «Lau kilokoak ekarri ditut eta itxura denez hemengo jendeari gustatzen zaio». Aitortu du herriz herri aldatu egiten direla gustuak, «normalean txitxarroa, berdela, oilarra, perlitak eta zapoa hartzen ditu jendeak».

Lea-Artibai eskualde guztian ibiltzen dira arraina saltzen, Lekeition izan ezik eta orain Gipuzkoako

merkatura zabaldu nahi dute eskaintza: «Iruran hasi gara baina Amezketa, Zaldibia eta inguruko herrietarako asmoa ere badugu». Bost herri egiten dituzte egunean eta bi lagun artean banatzen dute lana.

Ondarruko portutik zuzenean

Normalean lehenengo egunetan ikusmiran gerturatzen da jendea, zein kalitateko produktua dagoen ikustera.

Iruran egindako lehen bisitan jende asko gerturatu zen arrandegi ibiltarira. Erosi ere egin zuten, Marurik esan duenez, arraina prezio merkean izaten baitute: «Kontuan hartu behar da Ondarruko portutik zuzenean datorrela produktua eta bitartekaririk ez dela izaten».

Bere herriaren inguruko propaganda ere egin du Marurik: «Ondarrun arraina zoragarria izan da beti eta bertatik zuzenean ekartzen dugunez kalitatea ziurtatuta daukagu». Bizkaiko kostaldeko herrira bisita egiteko gomendioa luzatu die arraina erostera gerturatu diren herritarrei.

Irurako udal gobernua herriko merkataritza sustatzeko konpromisoa hartu zuen hauteskunde kanpaina eta ildo horri jarraituz arrandegi zerbitzua eskainiko du hemendik aurrera. Gaur egun herrian ez dago arraina saltzen duen saltokirik. Hemendik aurrera asteazkenero izango da Maruri arraina saltzen kulturgune ondoko aparkalekuan eta aurrera begira, ostegun goizetan gerturatzeko asmoa ere badu.



Maruri eskutan lau kiloko legatz banarekin. JON MIRANDA

tolosaldeko
ataria

ataria
irratia

ataria
internet

ataria
prentsa

Zure iragarkia jartzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

«ZAHARTZAROA ETA ZAHARTZAROAREN AJEAK UMOREZ KONTATZEN DIRA»

RAMON AGIRRE
AKTOREA

Bilboko Arriaga antzokian herenegun estreinatu zuen Txalo taldeak 'Heroiak' izeneko antzerki lana eta Villabonako Gurea zinema aretoan igandean eskainiko dute 19:00etan

Jon Miranda

Hiru aurpegi ezagun igoko dira Gureako oholtza gainera datorren igandean eta horietako bat da Ramon Agirre (Donostia, 1954) aktorea.

Euskal Herrira iritsi aurretik ibilbide luzea egin al du obrak?

Parisen denbora asko egin zuen eta arrakasta lortu zuen. Londresen ere oso aktore ezagunekin eman zuten eta hona, Euskal Herrira, Txalo produkzio taldeak ekarri du. Nik itzuli dut lana euskarara eta Begoña Bilbaok zuzenduko du. Bere ibilbidea badu



GUTUNAK

Ordainsarien zifrak: aurreikuspenek diotena

Pasa den legealdian, EH Bilduko udal taldeak garrantzi berezia eskaintzen zien udal aurrekontuei eta oraingoan ere berdin jarraitzen dugu. Azken lau urteetan, aurrekontuek udal gobernuak urte horretarako zituen proiektu eta asmoak jasotzen dituzte. Gainera, herritarren interesen alde eta herritarren ekarpenak biltzeko, aukera desberdinak eskaintzen zitzaizkien tolosarrei, aurrekontuak itxi aurretik eta gero.

Aurten dena aldatu da. Inoizko aurrekontu gris eta tristeak ditugu Tolosarako. Aurrekontu hauek, bere horretan, ez dute proiektu edo asmo berriak aurreikusten eta gainera, herritarrok -EH Bildu barne- ez dugu inolako aukerarik izan parte hartzeko. Udal ordezkariak ezin izan dugu aurrekontuak osatzeko parte

hartu. Aurrekontuei ekarpenak egiten saiatu gara, baina ogasun batzordean negoziaketarako aukera eskatu genuenean, EAJren erantzuna aurrekontuak itxita zeudela izan zen. Hau guztia, prentsa aurrean azaldu genuen eta horrekin batera, aurrekontuen balorazioa egin. Tolosarrei azalpenak eta informazioa zor dizkiegu eta hori egin genuen, gardentasunez.

Gure harriidurarako gure herriko alkateak prentsan idatzitako lerroak irakurri behar izan ditugu gezurretan ari garela esanez. Lastima da horrela ibili behar izatea. Tolosako alkateak eskutitz horrekin sortu nahi duen ika-mikak oso ibilbide motza du. Izan ere, osoko bilkura guztiek dute bere akta eta prentsak hemeroteka. Beraz, herritar oro gonbidatu nahiko genuke akta eta prentsan jasotakoak irakurtzera, horrek guztia argitzen baitu.

EH Bilduko udal taldea ez da gezurretan ari, hemerotekara jotzea

antzerki lanak baina ez da hain zaharra ere.

Zer da antzerki lan honetan kontatzen duzuen?

Erretiroa hartutako hiru gerra beterano dira protagonista. Propio gerran ibilitako jendearentzako zaharretxe batean bizi dira. Bakoitzak badu bere pitzadura psikologikoa, fisikoaz aparte. Elkarren osagarriak diren hiru pertsonaia xeble dira. Nik jokatzeko dudanak badu bere harrikada: txapela jantzi orduko bere militar sena ateratzen zaio eta etengabe ari da bere jatorri noblea azpimarratzen.

Hiru gerra veteranoren papera jotzeko hiru aktore beterano.

Kandido Uranga eta Joxe Ramon Soroiz aritzen dira nirekin taula gainean. Gazteak gara, oraindik, baina antzerki munduan badaramatzagu urte batzuk.

Komedia bat dela esango zenuke?

Obra ez da barrez lehertzekoa baina badu umorea. Tartean gai serioak daude, hiru hauek heriotzari izkin egiteko zaharretxetik ihes egin nahi dute. Gaixotasuna agertzen da, baina beti ere umore ikuspegitik Algaraka egoteko modukoa izan ez arren, baditu bere kolpeak eta samurra da.

nahikoa da hori ikusteko.

TOLOSALDEKO ATARIA-k horrelaxe jaso zuen gure esana: «Partida guztiak mantendu edo jaitsi dira, eta salbuespenen artean goi karguen ordainsariak daude; beren soldatak %45 igotzea aurreikusi dute». Eta hori, egia biribila da; partida horretan %45eko igoera aurreikusi da. Udal gobernuak 2016rako alkatea eta alkate-ordea liberatzeko asmoarekin jarraitzen du, 44.000 euroko soldata gordinarekin bakoitza. Beraz, «Goi karguen ordainsariak» dioten partidaren 88.000 euro jartzearekin nahikoa zen. Aurrekontuan, ordea, 128.000 euro islatu dira. Hori %45eko igoera da.

EH Bilduko udal taldea gardena eta parte hartzeari irekia izan da, lehen, orain, eta beti izango da. EAJren udal gobernuak egindako lehen aurrekontuek galdu dute aukera hori. Datorren urtekoen zain geratuko gara.

Lore Agirre,
Tolosako EH Bilduko zinegotzia



Dantzariak eta txantxoak baserriz baserri puska biltzen ibiltzen dira inauterietako bigarren asteburuan. ATARIA

06

LEHEN INAUTERIETAKO GELDIALDIA

Lizartzarrak dira eskualdean inauteriak antolatzen eta ospatzen lehenak. Nekazal giroko inauteriak bezala deskribatzen dituzte, eta puske biltzeak eta dantzek protagonismo berezia izaten dute.

Maier Ugartemendia

Inauteri giroa sumatzen hasi da eskualde osoan. Egun zoro horiek bizitzen lehenak izango dira lizartzarrak, asteburu honetan ekingo baitie inauterietako ospakizuei. Aurreko egunak «lanpetuta» igarotzen ari direla dio Malentxo Arrospidek, inauteriak antolatzeaz ardurtzen den Otsolar dantza taldeko kidea. Azken orduko ohiko arazoei aurtan taldean biltzeko izan zituzten arazoak gehitu zaizkie, baina hala ere, aurtengoa ere ez dute hutsik egingo.

Lizartzako inauteriak berreskuratzeko informazio bilketa lana egin behar izan zuten. Ahozko transmisioak euskal kulturaren garrantzia handia

izan du, eta Lizartzako inauterietan ere beharrezkoa izan zen: «Ahoz aho helduengandik jaso genituen lehenengo adierazpenak. Beraiek 1920-1930 inguruan ospatzen zituzten».

Inauteri dantzak, berriz, ez dute loritu noiztik datozen jakitea, baina horiek ere transmisioaren bidez mantendu dira. Aurreko mendearen hasieran

**Lizartzako inauteriak
Tolosakoengandik
desberdinak dira; nekazal
giroko inauteriak dira**

**Dantzariak eta txantxoak
puske biltzen ibiltzen
direneko eguna oso polita
izaten da**

Lizartzan inauteriak ospatzen baziren ere, duela «hogeita hiru urte» berreskuratu zituzten berriro inauteri jaiak. Hain zuzen ere, orduan data ezartzerakoan, «tradizio handiko» Tolosako Inauteriak kontuan izan zituzten, «aurre» egitea ezinezkoa zela pentsatuta. Horregatik, Tolosakoak baino astebete lehenago egitea erabaki zuten. Hala ere, bazuten beste ohitura bat ere: «Inauterietako jakia izateko txekorra astebete lehenago hiltzen zuten». Tradizio hori ere «berritu» egin nahi izan zuten, eta Tolosakoak baino hamabost egun lehenago egiten dute festa hura, nahiz eta eraberritu egin duten.

Nekazal giroko inauteriak

Inauteriak galduta egon ziren garaian ere, inauteri dantzak mantendu egin ziren Lizartzan, «herriko festetan» egiten ziren. Dantzak «ondo» atera zirela eta, «beroaldian» inauteriak egiten hastea erabaki zuten, aurrekoengandik jasotakoaren «ahalik eta berdintsuena» egiten; nahiz eta gerora egokitzen ere joan diren. Otsolar dantza taldeak hartu zuen ardura hori.

Horrela sortu ziren Arrospidek «nekazal giroko inauteriak» bezala deskribatzen dituenak. Tolosakoengandik desberdinak direla uste du: «Gure inauterian dantzariak larunbat goizean etxetik etxera dantza egitea eta puske biltzera joaten dira. Gero horrekin otordua egiten dute». Hori inauterien «muina» da. Bestalde, moztzeko giroa ere sortu da herrian, eta «gurdiak eta



Mozorroak eta gurdiak ere ez dira falta izaten Lizartzako kaleetan. ATARIA

mozorroak» ere antolatzen dituzte. Dantzak dira protagonista Lizartzako inauterietan, horren erakusle 600 biztanleko herri batean «60 dantzaritik gora» aritzea dantzan egun horietan: «Inauteri dantzak ia gazte guztiek dakizkite. Gure aurrekoek bezala guk ere transmisioa egin nahi izan dugu».

Parte hartzea zabal izaten da inauterietan, Arrospideren esanetan «jendeak gehien parte hartzen duen» festa da.

Biasteburu potolo

Lizartzako inauteriak bi asteburutan banatzen dira. Bihar ekingo diete lehen jai egunari. Txekorrari lotutako festa hura egiten dute orain ere, baina garai berrietara egokituta: «Garai batean txekorra plazan hiltzen zen eta dantza taldeak dantzak egiten zituen. Gero hori aldatzen joan zen, animalien babeseko elkarteak ahotsoa altxatzen hasi zirenean. Orain mataderian hiltzen da eta haragia jaten da». Hor-taz, oraindik dantza taldeak saioa egi-

ten du eta txekorrarena antzerki bidez «irudikatzen» dute.

Lehen «egun polita» dela uste du Arrospidek, «giro polita» sortzen delako eta hurrengo astebururako «motorrak berotzeko» balio duelako. Hala ere, Arrospidek inauteritako une bat aukeratzekotan bigarren asteburuan dantzariak eta txantxoak puske biltzen ibiltzen direnekoa aukeratuko luke: «Eguerdian kalera jaisten direnean mozorroekin nahastuta sortzen den giroa oso berezia izaten da».

Hala ere, bigarren asteburuari hasiera emateko ardura eskolako haurrek izango dute ostiralean mozorro festa ospatuko baitute. Hori ere antolatzaileentzat «pizgarria» eta «eransgarria» da inauterientzat.

Azken egunean, inauteri dantzariak «ekitaldi nagusia» egiten dute: «Guretzako polita eta berezia».

Tolosaldeko herritar guztiak Lizartzako inauteriak «ikustera» eta bertan «parte hartzera» gonbita ditu Arrospidek.

EGITARAUA

BIHAR, URTARRILAK 23

12.00. Inauterietan hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan direla. Ondoren, antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia. **19.00.** Kantu poteoa herriko inauterikantuak abestuz.

URTARRILAK 29, OSTIRALA

14.15. Eskolak antolatuta mozorro festa. Ondoren, kalejira.

URTARRILAK 30, LARUNBATA

07.00. Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. 'Diana' abestuz hasiko da inauteria. **07.30.** Puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospeletik. **09.30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko. **12.00.** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik. **13.30.** Inauteri partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denek elkarrekin bazkalduko dute herriko frontoian. **18.00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta 'Lizartzako talogileak' egindako taloak jateko aukera izango da.

URTARRILAK 31, IGANDEA

11.00. Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketako plazan. **12.00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. Ondoren, Lizartzako Ihaute Dantzak plazan. **14.00.** Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren, txaranga eta bertso saioa. **20.30.** Plazan 'Ijitoa' errez inauterien amaiera.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Felix Etxabe
Erauskin



Zure montecristoen kea bezala
haizatu bazara ere,
Bionako sendiak ez zaitu ahaztuko

Agur, osaba Felix!

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



telefonoa
943651063

e-posta
012244aa@hezkuntza.net
webgunea

www.samaniego-tolosa.hezkuntza.net

- :: Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
- :: Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)



07:30etik
aurrera

Haur Txokoa



telefonoa
943651387
webgunea
www.orixebhi.hezkuntza.net
e-posta
012980aa@hezkuntza.net

- :: Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza
- :: ZIG - Lanbide Tailerra
- :: Batxilergoak

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

Matrikula epea: urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

MOZORRO JAIALDIA

Eroski Tolosa

Otsailak 6, larunbata
11:00etan Hipermerkatuan

*Sariak zozketa bidez
banatuko ditugu
partaide guztien artean*



Iurre Usabal, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 670 900 / 943 671 271



‘Oroitza-penak’ antzezlan, neguko egitaraua hasteko

Joseba Usabiaga aktore tolosarraren emanaldia zinema aretoan izango da, gaur, 22:00etan hasita

Imanol Garcia Landa

Formatu txikiko antzerki saio batekin, «minimalista», bere egileak dioen bezala, hasiko da gaur Alegiako neguko egitaraua, Kultura Batzordeak antolatutakoa. Joseba Usabiaga aktore tolosarrak sortu duen *Oroitza-penak* emanaldia ikusi eta entzun ahal-ko da, gaur, 22:00etan hasita, zinema aretoan.

30 urteko gazte baten memoriak eta penak biltzen dituen saioa eskainiko du Usabiagak, horietako zenbait bere bizipen eta esperientzietan oinarrituta, eta gehienetan esajeratuta. «Orain urte eta erdi egin nuen lehenengo al-diz emanaldia», azaldu du Usabiagak. «Ordu erdiko gauzatxo bat prestatu nuen, nik bakarrik egiteko, eta orduez gero beste leku batzuetatik deitu dida-te». Hasierakoo hori moldatu eta ordu-

bete inguruko saio bat osatu du: «Emanaldi xumea da, elementu gutxiarekin, erdi bakarriketa erdi antzerkia dena». Iraupenaz gain moldaketak ere egiten joan da, «funtzionatzen duenak eta ez duenak begiratzuz». Dagoeneko 25 emanaldi inguru egin ditu Usabiagak, eta beste emanaldi batzurekin Alegian izan bada ere, lehenengo aldia izango da berarentzat zinema aretoan antzeztuz.

Egitarau zabala

Gaurko emanaldiaren ondoren eta martxoaren 20a bitartean, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte. Otsailaren 19an, *Biziminez* dokumentala eskainiko da zineman. Bizitzari buruzko gogoeta sakona da Pablo Dendaluze zuzendariaren lana. Josu Iztueta eta Antxon Arzaren bizipenak kontatzen ditu eta emanaldiaren amaieran solasaldia izango da Iztuetaekin. Otsailaren 27an bertso bazkaria izango da Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin. Martxoaren 4an Sutarri dantza taldearen emanaldia zineman eta

EGITARAUA

URTARRILAK 22, GAUR

22:00. *Oroitza-penak*, Joseba Usabiagaren eskutik, zineman.

URTARRILAK 31, IGANDEA

Uzturrera mendi irteera, Alegiako mendi asanblada antolatuta.

OTSAILAK 4, OSTEGUNA

19:00. Txintxarri abesbatza kantari Santa Ageda bezperan.

OTSAILAK 17, ASTEAZKENA

17:00. Ipuin kontaketa Apikaren eskutik liburutegian. 4-7 urte bitarteko umeentzat.

OTSAILAK 19, OSTIRALA

22:00. Dokumentala: *Biziminez*. Ondoren, solasaldia Josu Iztuetaekin. Zineman.

OTSAILAK 27, LARUNBATA

Bertso bazkaria Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin.

MARTXOAK 1, ASTEARTEA

18:30. Loatzo musika eskolaren emanaldia kultur etxean: perkusioa.

MARTXOAK 4, OSTIRALA

22:00. Sutarri dantza taldearen emanaldia zineman.

MARTXOAK 8, ASTEARTEA

19:00. Elkarretaratzea plazan.

MARTXOAK 11, OSTIRALA

22:00. *Bertsolaritzaren sekretuak* bertso emanaldia zineman.

MARTXOAK 12, LARUNBATA

Egun osoan zehar Loatzo musika eskola eta Villafranca del Penedes musika eskolaren festa.

MARTXOAK 15, ASTEARTEA

17:00. Ipuin kontaketa Apatxiren eskutik liburutegian. 4-7 urte bitarteko umeentzat.

18:00. Loatzo musika eskolaren emanaldia udaletxean: eskusoinua.

MARTXOAK 20, IGANDEA

Arditurra mendi irteera, Alegiako mendi asanbladak antoaltuta.

martxoaren 11n *Bertsolaritzaren sekretuak* bertso emanaldia izango da leku berean. Hurrengo egunean Loatzo eta Villafranca del Penedes musika eskolen jaia ospatuko da.

Bestelakoan, Alegiako mendi asanbladak antolaturiko bi mendi irteera, ipuin kontaketa haurrentzat, Loatzo musika eskolako perkusio eta eskusoinu saioak, eta Txintxarri abesbatza santa eskean aterako da. Azkenik, aipatu martxoaren 8an elkarretaratzea egingo dela plazan Emakumeen Nazioarteko Egunean harira.



Tolosaldeak bere txokoa du Fiturren

Herenegun, urtarrilaren 20an, zabaldu zituen ateak Madrilgo Fitur Nazioarteko Turismo Azokak, eta 36. edizio honetan ere ordezkari izango du Tolosaldeak. Euskadi standaren barruan kokatuko da gurea eta besteak beste ondorengo eskaintza turistikoa erakutsiko da: eskualdeko informazio orokorra gerturazten diren eskura izango da, Tolosaldea-Goierrri eskuorriarekin.

Horrez gain, natur produktuak Trail Estazioa eta BTT zentroa bezala eta baita Tolosa Gourmet klubaren inguruko informazioa ere lehen eskutik jaso ahal izango dute azokara bertarazten direnek.

Baina bereziki bi turismo eskaintzak izango dute presentzia Fiturren:

Alde batetik, aurtengo berrikuntza gisa, Asteasuko Alkatea Pili Legarra

eta Donostia 2016ko ordezkari Idoia Noble izango dira, kazetariak *Muskerraren bidea* proiektuaren berri emateko. *Muskerraren bidea* Obaba literarioa eta Asteasuko herria bateratzen dituen proiektua da, Bernardo Atxagak, Donostia 2016k eta Asteasuko Udalak elkarlanean sortua. Toki zehaztugabea da Obaba, eta bertan daude kokatuta Bernardo Atxaga idazlearen narrazio ezagunetako zenbait, hala nola *Sugeak txoriari begiratzen dihonean* (1984), *Bi anai* (1985) eta, bereziki, *Obabakoak* (1988). Asteasutik abiatuta, Obabako lurralde horretan barrena murgiltzen den pasealekua da *Muskerraren bidea*. Hala, pausorik pauso, Bernardo Atxagaren lana eta Asteasuko paisaia ezagutzeko aukera ematen du *Muskerraren bidea*-k.

Bi kilometro inguruko bidean zehar, zazpi panel aurkituko ditu ibiltariak. Bertan, Asteasu-Obaba lurraldeari lotutako kultur gaiak azalduko dira, bertako pertsonaiei buruzko azalpenekin batera. Horietako batzuk panelean irakurgai egongo dira, eta beste zenbait QR kodearen bidez zabalduko den web orrian entzungai.

Eta bestetik, Euskadi Gastronomia proiektuaren barruan kokatzen den Museo Gastronomikoen sarea ere aurkeztuko da, 2016. urtean aurreikusten diren ekimenekin. Sare honen parte da Tolosako Gorrotxategi Museoa eta bertan izango da ordezkari bat ere.

Tolosatik, Olatz Peon alkatea, eta Nerea Letamendia zinegotzia ere azoko izango dira, Tolosaren turismorekiko apustuarien isplu.



OSTIRALA URTARRILAK 22

ADUNA

19:00. Esku pilota. Txulobikoen partida.

ALEGIA

ELORRIPILOTALEKUA

18:45. Esku pilota. Intxurrekoen bost partida.

ASTEASU

USARRABIPILOTALEKUA

19:00. Esku pilota. Atzaparrekoen bi partida.

IKAZTEGIETA

19:00. Esku pilota. Intxurrekoen hiru partida.

IRURA

AMETSA TRINKETA

20:00. Xarea. Ametsakoen arteko partida. Ondoren, Behar Zanakoen bi partida esku pilotan.

LIZARTZA

18:30. Esku pilota. Tolosakoen bost partida.

TOLOSA

UZZURPE

20:30. Areto futbola. lurre-Zaldibia.

BEOTIBAR PILOTALEKUA

19:30. Esku pilota. Tolosakoen hiru partida.

Ondoren. Zesta punta. Federatuen partidak.

ZIZURKIL

INTXAUR PILOTALEKUA

18:30. Esku pilota. Ziotzakoen hiru partida.

LARUNBATA URTARRILAK 23

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

09:30. Futbola. Intxurreko infantilak, Aitzgorriren aurka.

12:00. Futbola. Intxurreko kadeteak Tourignen aurka.

15:30. Futbola. Intxurreko ohorezko jubenilen partida, Aretxabaletaren aurka.

AMASA-VILLABONA

BEHARZANA PILOTALEKUA

16:30. Esku pilota. Behar Zanakoen partida.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

17:00. Esku pilota. Euskal Herriko Pilota Elkarteen Arteko II. Txapelketaren finalak: Aurrera Saiatz eta Pagazpe.

IBARRA

BELABIETA KIROLDEGIA

17:00. Sokatira. Euskal Herriko Txapelketa. Ibarra bi talde ariko dira lehian.

IRURA

AMETSA TRINKETA

15:15. Esku pilota. Hiru partida.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

09:30-12:00. Esku pilota eta zesta punta partidak.

12:00. Txirrindularitza. Oriako Txirrindularitza Eskolaren aurkezpena.

16:30. Esku pilota. IV. Migel Soroa-Ogi Berri Txapelketako partidak:

• Jubenilak: Exposito-Aranguren/Garcia-Ruiz.

• Promesak: Prado-Iruretagoiena / Apaolaza-Urizar.

• Eliteak: Errandonea-Martinez/Ugalde-Kastillo.

19:45. Esku pilota. Tolosakoen hiru partida.

USABAL KIROLDEGIA

09:00. Saskibaloia. TAKEren zazpi talderen partida. Azkena 15:30ean.

09:00. Areto futbola. Laskorain infantilak, Mondrateren aurka.

10:00. Eskubaloia. Tolosa Eskubaloiairen hiru talderen partidak. Azkena 13:00etan.

18:00. Areto futbola. Laskorain-Gure Txokoa, bigarren mailako partida.

UZZURPE

10:30. Areto futbola. Orixe-Aldapeta.

12:00. Areto futbola. Orixe-Egintza.

IGANDEA URTARRILAK 24

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

16:00. Futbola. Lehen Erregional mailako partida: Intxurre-Billabona.

ASTEASU

USARRABI PILOTALEKUA

11:00. Esku pilota. Atzaparrekoen partida.

IRURA

AMETSA TRINKETA

11:30. Esku pilota. Bi partida.

TOLOSA

SANFRANTZISKO PASEALEKUA

11:30. Atletismoa. XIX. Ero Etxe Krosa. Infantilak, alebinak eta benjaminak. Guztira sei lasterketa. Azkena, 12:35ean.

USABAL KIROLDEGIA

11:30. Eskubaloia. Tolosa Eskubaloia-Hondarribia.

UZZURPE

15:00-18:30. Areto futbola. Etorkinen txapelketak, finalak.

TALDE NAGUSIAK

Aloña mendi

TOLOSA CF

Futbola. Ohorezko erregional mailako partida, Oñatin, igandean, 16:30ean.

TOLOSA CF

Mutriku

Futbola. Erregional mailako igoera fasea. Tolosako Usabalen, larunbatean, 17:30ean.

Concepto Debabarrena

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Mailako partida, Elgoibarren, igandean, 12:30ean.

TAKE SASKIBALOIA

La Flecha

Saskibaloia. EBA ligako partida Tolosako Usabalen, larunbatean, 19:00etan.

TOLOSA ESKUBALOIA

Pulpo

Eskubaloia. Nazional Mailako partida, larunbatean, Tolosako Usabalen, 16:30ean.

ASTELEHENA URTARRILAK 25

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

16:30. Esku pilota.

• Gorka - Urruzola/Elordi - Erostarbe.

• Bengoetxea VI - Untoria/Artola - Albisu.

• Jaunarena - Irusta/Mendizabal III.

**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 23 • 10:00
Ohorezko Kadete maila
BILLABONA FKE - OIARTZUN KE

Larunbata, 23 • 12:00
Infantil Txiki maila
BILLABONA FKE - OIARTZUN KE

Larunbata, 23 • 17:00
Jubenil 1. maila
BILLABONA FKE - URKI CD 'B'



ikastolan

denok gara gu



ikastolenelkartea

www.ikastola.eus



Herri Kiroletatik...

O'Toole, Maria Kristina, eta Errota Harria

Leitzan leitzarrak nagusi. Igan-de eguerdian Urrezko Aizkolari-
Txapelketako jardunaldia jokatu zen Amazabal pilo-
talekuan. A multzoko lau aizkolari
aritu ziren lanean. Jardunaldi eraba-
kigarria zen. Atutxa III-Mugertza II.a
finalean zeuden, eta bigarren postua
zegoen jokoa. Leitzan aritu ziren bi
bikoteek aurreko jardunaldia galdua

zuten, eta beharrez-
ko puntu horren
bila, etxekoak nagu-
situ ziren: Jon Re-
kondo eta Ruben
Saralegi. Hiru minu-
tuko aldea atera
ziren Arria V-Larra-
ñagari. Ez zen ezus-
tekorik egon, Atutxa
III.aren eta Muger-
tza II.aren aurka,
hain justu, horiek

ibili baitziren ondoen. Estu hartze-
rains. Berrero ere gakoa zutikakoan
egon zela esan daiteke, eta berrero
ere Arria V.a ezinean ibili zen lanketa
horretan. Ez da erraza, eta lau edo
bost entrenamendurekin joatea ez
da nahikoa zutikakoan ibiltzeko. Hor
galtzen den denborari buelta emat-
tea, aldiz, oso zaila da. Etzanda sei
enbor ebakitzen dituzte ondoren, eta
galdutako denbora iraultzeko enbor
bateko aldea atera beharko litzateke.
Hori ia ezinezkoa da. Gauzak horre-
la, leitzarrak bigarren postuan geldit-
tu dira multzo horretan, eta beste
multzoko bigarrenen aurka jokatu-
dute finaleko txartela.

B multzoko jardunaldia larunbat
honetan Lakuntzan jokatu da,
13:00etan. Eta ikusmin handia dago-
ela esan behar da. Vicente-O'Toole
bikotearen estraineak izango da,
eta begirada guztiak australiarrari
zuzenduak daude. Zutikakoan izuga-
rri egiten duela badakigu, eta enbor
bat ebakitzen munduko txapelduna



Joseba Otaegik Lakuntzan ariko da lanean igandean. Lopez Azpilikueta lagun duela. A. IMAZ

dela. Ikusi beharko da sei enborreki
nola moldatzen den, baina horretar-
ako iazko ezustekoa izango du la-
gun, 18 urteko Iker Vicente. Bikote
oso polita osatzen dute. Orain, zalan-
tzak argitu beharko dituzte. Baina
kontuz, espero den bezala ibiltzen
baldin badira, zeresana emango
dute-eta. Aukariak Joseba Otaegi zi-
zurkildarra eta Lopez Azpilikueta
izango dira. Isil-isilik, baina finaletik
oso gertu daude bi aizkolari horiek.
Lehen jardunaldian Azurmendi-La-
rretxea garaitu zituzten, arlo guztie-
tan nagusitasuna erakutsiz. Zarata
handiegirik atera gabe jarraitzen
dute. Lan luzerako hauspoa landu
beharko lukete, baina urrezko tx-
apelketako ariketa hauetan, ea nork
irabazten dien.

Egun berean, hau da, larunbat ho-
netan, Donostia 2016 Kultur Hiribu-
rutza inauguratuko dute. 20:00etan
izango da Maria Kristina zubian,
ikuskizun edo dena delakoa, eta ber-
tan izango gara. 100 herri kirolari
baina gehiago elkartuko dira inau-
guzio horretan. 10 minutuko tartean,
erakustaldia egingo dute, musika la-
gun dutela, eta erritmoa jarraituz. 20
harri jasotzaile, beste horrenbeste
aizkolari, 32 trontzalari, 16 bat ingu-
dearekin, lasto altxatzaileak, harri

zulatzaileak... Ez dakigu hortik zer
aterako den, baina han egongo gara.
Han egongo den bestea Arrospeide
izango da. Leaburuarra berriro aiz-
kora ikusteko aukera izango da,
erakustaldi horren barruan. European
zabalduko omen da, eta herri kirola-
riak ere erakutsi nahi omen dituzte.
Ea zer nolako saioa ateratzen den.

Donostian bezala, Zestoako Irae-
tan harri-jasotzaileak eta aizkolariak
egongo dira igandean, 17:30ean. Ha-
siera batean bi urtez behin egiten
den txapelketa antolatu nahi zuten,
baina Errota Harria jasotzeko nahi-
koa harri jasotzailek izena eman ez
dutenez, erakustaldia egingo dute.
107 kiloko Errota Harria berezia da,
bola da, baina ez erabat. Haimar Iri-
goienek dauka marka jarria, baina
errezildarra lesioarekin dabil. Entre-
namenduak egin ditu, eta bost minu-
tuko txanda egiterakoan lesioa ez
duela gairatu konturatu zen. Mina
sentitzen du, eta ondorioz, geldirik
jarraitu beharko du. Iraetan egongo
dena Joxe Ramon Iruretagoiena Ize-
ta II.a izango da. Errota Harriarekin
marka saiakera egingo du, gainera,
10 minutuko txandan. Nahiz eta tx-
apelketarik ez egon, jaialdi polita an-
tolatu dute azkenean iganderako,
Iraetan.



**JOXE ANJEL
SARASOLA**

«Zirujauak zehaztasuna behar duen bezala, nik bihotza»

JOXEAN ORBEGOZO SAINZ
ANTZETZLEA

Tolosarra da Joxean Orbegozo Sainz, 1980.eko uzta. Madrilén du bizimodua, agertokien gainean eta zoriontasuna du aldarririk handiena: «Triste egotea hobeki ikusia dago irribarretsu egotea baino, erokeria galanta da hau».

Josu Ozaita

29 urterekin bere bizitzako mugarria ipini zuen: Tolosako paper fabrikako lana utzi eta Madrilera abiatu zen an-

tzezpen prestakuntza jasotzera. Gauéz ogia egiten zuen, egunez berriz, ikasi, bere ametsetako ogibidea lantzeko. Lau urte igarota, bere lehen lantxoa, proiektu berria eta pertsonaia desber-

dinak antzetzten zituen agertokian. Herria utzi eta sei urte beranduago bere azken lana Topic-en izango da ikusgai larunbat honetan, bihar: *Grandes éxitos*.



IKUSKIZUNAREN INGURUAN

Ezustekoak maite ditugu, baina arrastoren bat emango al diguzu zure ikuskizunaren inguruan?

Istorio ondradua, barreak, abestiak eta emozio ugari.

Nondik sortu zen ikuskizun hau?

Istorioak kontatzea dut gogokoen, nire ofizioa baita. Nora iritsi nahi nuen garbi neukan hau idazten hasi nintzenean, eta orduantxe, asko irakatsi eta lagundu didan pertsonaia bat agertu zen nire bizitzan. Kasualitateak ez dira kasualitate.

Ikuskizunaren izen horrekin, 'Grandes éxitos', hasi aurretik jada arrakastatsua da. Nondik dator?

Hitz jokoa da, eta nire musika zaletasunari keinua, arrakastatsuak izan diren abesti horiekin jolastea du oinarri. Beti gure bertsio hobereana kontatzen saiatzen gara, baina hori, pertzepzio oso pertsonala da. Izan ere, niretzako arrakasta izan dena, beste harentzat pasadizo arrunta izan daiteke.

Zein osagai barnebiltzen ditu?

Maitasuna eta errespetua.

Barre edo negar egingo dugu?

Zirrara sentituko dugu gorputzean barrena.

Zein dira bidaia lagunak ikuskizun honetan?

Lagunak, oroitzapenak, abestiak, pertsonaiak, ikuslegoa, ni, ametsak...

«Espero ez duzun antzezlan da. Giro atsegina transmititzen du ezenatokian, eseri bezain pronto gozatzen hasten zaren horietakoa. Ez da betiko istorioa, zerbait ezberdina baizik...». Sarean irakurri dugun kritika. Zertan da ezberdina ikuskizuna?

Kritikoak oso ondo portatu dira ikuskizunarekin, eta baita ikuslegoa ere. Egia esan, espero ez duten lana izan da, antzerki bakarlaria. Eta honekin batera zuzeneko abestiak daude, umorea dago, eta ikuslearekin harreman zuzena: antzerkia sentitu eta ikusteko beste modu bat da. Ezustekoarekin jolasten dut, jendeak hasieran espero duen hori hausten, eta honela, bestelako bizipen berezi batekin aterako dira.

Erakargarria oso...

Momentu horretarako soilik egindako zerbait izango da, ikuslearekin batera sortuko duguna, eta gero, beraiekin eramango dutena.



Nolatan erabaki zenuen lana utzi eta bizimodu segurua uztea?

Ez zen batere erreza izan, baina prozesua izan zen. Aurreko urtean aldaketarako prestatzen hasi nintzen: non ikasi, non bizi... Baina aldaketa asko erraztu dutenak, bertan topatu ditudan lagun eta lankideak izan dira. Haiek gabe zailagoa izango zen dena, ziurrenik.

Honetatik bizitzeko Madrilerara joan beharra dagoela diote.

Bertako eskaintza kristorena da, eta Madrilen bertan aurkitzen dira ekoizle eta antzoki gehienak. Honekin batera kompetentzia gehiago egotea ere esan nahi du, baina pilak jarri eta lanean finagoa izatea ere badakar berarekin. Orokorrean izugarrizko kultur menua dago: liburutegiak, museok, zineak, sekulako musika jartzen duten taberna xebleak... eta gero, harremanen aniztasuna dago.

Ikuskizuna amaitu eta jende berria ezagutzekoan, beraien bizitza konpartitzean, mundu berri asko irekitzen dira. Askotan, gure zilborrera begira egoten gara, eta hortik begirada altxatzean, altxor asko topatzen dira. Ariketa oso interesgarria da hau, oso.

Herri eta hiri ezberdinetan ikuskizunarekin aritu ostean, orain etxean. Besteekiko ezberdina izango da?

Ezinbestean. Prestaketa berezia burutzen ari gara Tolosarako, guretzat oso garrantzitsua izango delako. Egia esan, baina ez dakit zergatik, bestelako gauzak prestatu ditugu. Eta honetarako energia eta ilusio bereziarekin aritu gara.

Nerbioak desberdinak izango dira, edo etxean jokatzeko duzu?

Gau bakoitzeko ilusio berezia izan ohi da, eta hemengo energia hori emozioan bilakatuko da, hor egongo baitira lagunak, familiartekoak, herrikideak. Etxean jokatzeko, baina ilusio hori ondo neurtu beharra dut onerako edo txarrerako.

Familiarteko, lagun eta ezagunak oso metro gutxira izango dituzu.

Noski, beraiek gabe ezinezkoa litzateke ikuskizuna aurrera ateratzea. Nire emazte eta lehengusuekin (Sara, Marta eta Izaskun) osatu dut konpainia, hauen laguntza ezinbestekoa izan delarik. Bestetik, bestelako familia-kide batzuek ere (Edu, Mikel eta Nerea), asko lagundu didate. Gertutasun honek asko laguntzen du.





Non ibili zara ikuskizun honekin?

2014ko azaroan burutu genuen estreinaldia Madrilgo El Montacargas antzokian. Bertan, lau hilabetez egon ginen ikuskizunen sailean. Handik birari ekin genion Toro, Zamora, Barakaldo, Iruñea, Logroño, Santander... eta hainbat hiritan errepikapenak egin genituen. Bira amaitu eta Madrilgo Sala TÚ-n bi hilabete aritu gara. Eta orain Tolosara. Espero dugu Tolosakoarekin beste espazio batzuetako ateak irekitzea.

Zein bizipen izan dituzu? Momentu onak egongo ziren, baina baita gogorrak ere...

Momenturik zailena iltzaturik dut: ikuskizunaren lehen emanaldia baino bi aste lehenagokoa izan zen. Oroitzen ditut garai haietako zalantza eta bel-

durrak. Eta hau bideratzea oso zaila izan zen, baina horri ere aurre egin genion. Bestetik, hoberenak, ikuskizuna amaitu eta jendearekin biltzean esker ona erakusten dizutenean.

Bitxikeriak ere baditut [Barreak], antzoki baten kanpoan esku-orriak banatzen ari nintzela, neska bati eman nion, eta nire antzerkian izan zuen bere lehen zita oraingo bere bikotearekin. Urtebetera beren istorio bitxi hori kontatu zidaten.

Tokitik tokira publikoaren profila aldatzen al da?

Dezente, oinarrizko egitura du ikuskizunak, baina baditu gauzak batzuetan sartu eta besteetan ez ditudanak erabiltzen, publikoaren arabera mugitzen ditudanak. Hori bai, neuk ere sorpresak hartzen ditut. Nire usteak ustel

ere bilakatzen dira, izan ere, funtzionatuko ez zutela usten nuen gauzak funtzionatzen dute zenbait tokitan, edo alderantziz.

Tolosa. Bere falta sumatzen duzu?

Bai, are eta gehiago egun hauetan, jasotzen ari naizen animo eta maitasun keinu pilarekin. Sarean sartu eta egunero begiratzen dut Tolosaldeko informazioa ATARIA eta beste egunkarietako orrien bitartez.

Zenbat egunez egongo zara?

Tamalez asteburua bakarrik. Beste proiektu batzuetan era ari gara, eta zaila izan dut egun gehiagorako etortzea.

Eta zer egingo duzu egonaldi labur honetan?

Erlaxatu eta energiaz bete, familia eta lagunekin egon eta herrian barrena paseoa ibili.

Zenbatero etortzen zara Tolosara?

Inauterietako igandea egun ukiezina da, nahiz eta geroz eta traba gehiago izaten ditudan. Gero, tarteka bilatzen dut parentesia etortzeko.

HAUSNARKETAK

Zoriontsu izan eta zoriontasuna zabaltzea duzu helburu. Hori irakurri dugu zure orrian, baina, nola egiten da hori?

Beharrezkoa da, eguneroko informazio tristeein inbaditzen baikaituzte. Triste egotea hobeki ikusia dago irribarretsu egotea baino, eta hau, erokeria galanta da. Bien arteko oreka da ezinbestekoa, izan ere, beti zoriontsu egon nahi izatea tranpa ere baita. Triste egonda zoriontsu izanda ikasi ezin ditzakezun gauzak ikasten dira. Hala ere, zoriontasuna iparrorratz hartzea, bizitzari aurre egiteko jarrera da.

Baina zer da zoriontasuna?

Besarkatzea, irribarre hori, begiradaxoa, abestia, esaldia, gauza asko, eta ezeren beharrik ez izatea.

Zer eman dizu zure antzerkiak?

Nire burua ezagutu eta aurrean dudan hura ezagutzeko balio izan dit.

Zertarako balio du antzerkiak?

Ametsak egi bilakatzeko.

Eta gero BEZa gehitzen zaio edozein produktu bailitzan.

Kulturak norbera eta alboan duzuna ezagutzeko balio du, gainera, amets egiteko bide izan daiteke errealitate bilakatzeko helburuz. Honek, pertsona askean bilakatzen zaitu dudarik

Grandes
éxitos

gabe. Aukera honen aurrean, badago jendea hau eragotzi nahi duena, honetarako makinaria guztia martxan jarriaz. Ez dute gizarte ameslari eta askea nahi. Tristea da, lehen esan bezala, informazio tristea eman nahiago dute.

Agintariekin kafetxoa hartzeko aukera izanda, zer esango zenieke?

Alde egiteko eta ez izateko beldurrik.

Artistak artista izateko ikasi egin behar al du?

Batez ere irekia izan behar du. Ikasteko gogoia izatea etengabe, berak egokien ikusten dituen iturri eta bideetatik, baina inongo biderik gutxietsi gabe.

Guztia izan daiteke ikasgai. Adi! Nik Antonio Vegaren disko batekin gehiago ikasi dut, nerabe garaiko urtebeteko eskola hezkuntzan baino.

Zer esango zenioke musika edo antzerkiaren bidea egin nahi duen gazteari?

Besarkada bat eman eta animo ugari emango nizkioke. Edozein bide egiteko ausardia handia behar da, eta nik, honetarako indarrak emango nizkioke, ausarta izateko.

Baina gurasoek fundamentuzko zerbait eta irteera duen zerbait ikasteko diote.

Hobe irakasle onak bilatzen saiatzea, irteeretan pentsatzea baino. Etorkizuna egunero egiten da. Askotan formetan erratzen gara, baita ni ere, askotan.

Eta honetatik bizi daiteke?


Honetatik bizitzean oso zoriontsu izan zaitezke. Eta posible da, nahiz eta lan asko egin beharra dagoen, denbora asko eskaini behar zaio. Ni ere, kaletik pasean noanean, pentsatzen noa, probatzen, berrikusten... nire lana da eta nik hautatua.

Nolakoa izan zen salto hori, zure kasuan?

Ausarta izan eta nire buruari entzunez. Eta baita, lagun eta familiari laguntza eskatzen ere. Egia esango dizut: ez da erraza baina merezi du.

Ea egia den artista askok esaten dutena: «Nerbioak dantzan ibiltzen ditut ikuskizun bakoitzaren aurretik».

Sekulako egia! Ez zaizkit topikoak gusztatzen, baina arnasa hartzea baino benetakogoa da hau. Ikuskizunaren aurreko bost minutuetan dena borborka izaten dut, ez dut atzera itzultzeko aukerarik, eta hori, lanbidearen parte da.



Ezustekoarekin jolasten dut, jendeak hasieran espero duen hori hausten; bestelako bizipen berezi batekin aterako dira

Gure zilborrera begira egoten gara, eta hortik begirada altxatzean, altxor asko topatzen dira

Antonio Vegaren disko batekin gehiago ikasi dut, nerabe garaiko urtebeteko eskola hezkuntzan baino

Ni arnasa sakon hartu eta kontzentratzen saiatzen naiz, eta ahal bada, ingurukoren bat besarkatu.

Eta inoiz nerbio horiek sentitzeari utziko bazenio?

Agur! Egingo nukeen horrek jada ez luke baliorik izango, nire burua ez nuke baloratuko, eta ezta, ni ikustera etorri den pertsona hori ere. Bere denbora zu ikusteko baliatuko duenak errespetua merezi du nire ustez.

Eta eszenatokitik jaistean zer egin duzu?

Indargearen eta izugarritzko pozaren arteko nahasketa da, zerua ukitzera iristen egongo banintz bezala. Nire hoberena eman dudanaren seinale izan ohi da sentsazio hori.

Lanpostu seguruago batek erakarririk izan zaitu?

Madrilera joan aurretik hala aritzen

nintzen, eta noski, honek ere bere alde on nabarmenak ditu, soldata ziurra izatea hilero kasu. Egunerokoa errepikatzeaz soilik arduratu behar nintzen, eta ez dago gaizki. Madrilen ere, okindegian aritzen nintzen. Oraingo lanpostua aldiz, ez da hain ziurra, baina asko betetzen nau.

«Antzerkia beti krisian dago», dio-te.

Badakit krisia etortzeak otsoa etortzearen zentzua izan dezakeela. Ados. Baina krisiak aldaketarako aukera garbiak dira, ordurarte funtzionatu duenak jada ez duela balio esaten digutenak. Antzerkigintza beti krisian dagoela esateak zentzu erromantikoa ere badu, baina nik nahiago dut sorkuntza eraginkorrako bezala ikusi.

Hala ere, antzerkigintza artea da eta ez da hala ikusten. Prestigio gabeko zerbait izatea da batzuen helburua. Kubara joan izan naiz, eta hura beste mundu bat da.

Hezkuntzak antzerkigintzara gerturatzan du jendea, errespetu izugarria dago artista munduari. Jendea prest dago sarrera ordaindu eta antzerkian barneratzeko, hitz egiteko etabar. Eta horretarako ere, prest egon beharko genuke.

«Ez dago egia baino gauza iraultzailegorik», diozu.

Bai, duela denbora bat entzun nuen, eta benetan eragin zidan. Errespetu gabeko garaian bizi gara, beldurra, mina, ilusio eza... eta honen inguruan zaila da egia aurkitzea. Orain egin dezakezun gauzarik hoberena zure buruarekin leiala izatea da, eta honela, zure ingurunearekin ere hala izango zara.

Nola egiten da hau?

Oso zaila da, eta niri ere zail egiten zait. Baina momentu eta une zailetan nire inguruneari entzuten saiatzen naiz, ezinezkoa dena da eserita geratu eta besteek eramaten uztea.

Pasioa borborka duzu...

Bihotza da nire iparrorratza, nahiz eta honek ere bere arriskuak dituen, baina bestela, nire lanak zaborra balioko luke. Zirujauak zehaztasuna izan behar duen bezala, nik bihotza izan behar dut.

Gozatu Tolosako ikuskizunaz! Eta zorte on!

Mila esker zuei, bihar arratsaldeko zortzietan elkar ikusiko dugu. Emozio handikoa izango da.



Tolomendiko Josune Malkorra eta 'Ataria' -ko Jexux Murua hitzarmena sinatzeko une batean. **M. UGARTEMENDIA**

Tolomendik eta 'Ataria'-k lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

19

Tolomendi Landa Garapenerako Elkartek eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeak 2016. urteari begira lankidetzaz hitzarmena adostu berri dute. Helburua, komunikabideak landa garapen elkartek eskualdean eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea da.

Akordio hori sinatzeko ardura izan dutenak Josune Malkorra Beristain eta Jexux Murua Gorostidi izan dira. Malkorrek hitzarmenari babesa eman dio Tolomendiko lehendakari gisa eta Muruak beste horrenbeste egin du, komunikabidearen kudeatzaila modura.

Erakunde biak, «eskualdearen garapen eta kohesiorako eragile garrantzitsuak» direla ulerturik, aurrerantzean batak egiten duenaren bozgorailu lana egingo du besteak. Hau da, Tolomendik landa garapenera bideratuta eskaintzen dituen askotariko zerbitzu

horiek, ATARIA-ren euskarriak baliaturik helaraziko dizkio eskualdeko base-rritar, nekazari, erakunde, eragile eta herritarrei.

Astekaria eta irratia bozgorailu

Honela, hamabostean behin honako aldizkarian Tolomendiren proiektuen berri helaraziko zaie irakurleei eta bi astez behin ere beste horrenbesteko tarteak izango du landa garapenerako elkartek ATARIA irratiari, *Pasahitza* irratsaioan. Zuzeneko elkarrizketak medio, Tolomendi hobeto ezagutzeko aukera izango du entzuleak.

Tolomendiko ordezkariak azpimarratu dutenez, aipatu tarteak elkartea osatzen duten «kide, udaletxe zein herriei» ere zabalik izango dira. «Euren leihio eta bozgorailu izan nahi dugu, aurrera eramaten diren proiektu horien berri eman dezagun».

HARREMANETARAKO TOLOMENDI.

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea. **Helbidea.** Nafarroa etorbidea, 6 (20.400) Tolosa.

Telefona. (943) 655 097.

E-maila. tolomendi@tolomendi.net.

Webgunea. www.tolomendi.net

BIGARREN GERRA KARLISTAREN KRONIKA TOLOSALDEAN (II):

Gerraren oihartzuna eta bertsolarien profeziak (1868-1872)

Asier Artola EHUko Historia-ikerlaria

Mila zortziehun eta hiru-rogheita seian Isabel II.a erreginak boteretik aparte zituen zenbait sektore politiko (liberalak, demokratik, errepublikarrak) Ostenden (Belgika) elkartu ziren itun bat sinatzeko. Itun horren funtsa, besteak beste, Borboien dinastia Espainiatik botatzea eta Gorte Konstituziogileak deitzea zen, beraien nahiak bilduko zituen Konstituzio berri bat egiteko, bertso paper batek gogorarazten duenez, Espainiaren historiako seigarren konstituzioa, «jaio orduko libertadeaz ez-kondutako galaia». Bertso paper haren egileak ordea ez zuen itxaropen handiegirik Konstituzio harengan, izan ere, «ez hasieran ez azkenian dakar Jaunaren izenik», eta erlijioaren absentsia hura «gizonak aberetzeko» modurik hoberena zen. Hain justu 1868ko altxamendu arrakastatsuen ostean Isabel II.a erbestera eta gorte berriek eginiko Konstituzio hark, sufragio unibertsal maskulinoaz aparte, erlijio askatasuna ere onartzen zuen, eta ordutik abiatutako «Seiurteko Demokratiko» hartan haxe izan zen euskal herrietako eztabaida gai nagusia, erlijioarena. Altxoko Imaz izan zen, besteak beste, gure eskualdean egoera berriaren aurkako bertso zirikatzailerik eta antiliberalak publikatzen aktiboena. Modu anonimoan eman zituen argitara, eta dirudienek, gai jar-tzaile bat zuela baitirudi, Altxoko erre-tore (eta etorkizunean Tolosako bikario izango zen) Patrizio Orkaiztegi zuen sustatzaile, neska-mutil maitasun kontuez bertsoak idazteari uzteko eskatu zion berbera.



Boluntario karlistak. ATARIA



Kleroak paper garrantzitsua jokatu zuten testuinguru berri hartan, bai gerra aurreko giro soziopolitiko berrian, baita gerra mobilizazioan ere. Eskualdeko adibiderik ezagunena Santa Cruz apaiza izango dugu, gerrak Hernialdeko parroko gisa harrapatuko zuen el-

duaindarra. Apaizek euren autoritatea erabiliko zuten hauteskunde prozesuetan eragiteko edota gerrarako errekluta egiteko. Baserriz baserri ibiltzen omen Santa Cruz apaiza apaiz bati zegozkion lanetan, baina aldi berean egunerokotasun hori arma boteretsu bilakatzen zen mobilizazio antolaketarako. Zenbait apaizek liberalismoaren alde egingo zutenak eskumikatuak eta ondorioz infernua kondenatuak izango zirela adierazi zuten eskualdeko pulpituetatik, bekatu baitzen liberalismoa. Sistema politiko berriaren berri emateko ere baliatuko zuten apaizek pulpituak. Hala, prentsaren arabera, Tolosako pulpituetan boto sistema berria zertan zetzan azaltzen aritu ziren apaizak. Konstituzio berriak ez zuen sakoneko aldaketarik ekarri euskal erakundeetara eta aurreko *statu quo*-a mantendu ahal izan zen, liberal eta karlistek dominatutako Diputazioetan iraganez boteretsuak mantendu baitziren eta gobernu zentraletik zetozen eskakizunei ezeztak emateko gaitasuna ere izan baitzuten. Sufragio unibertsal maskulinoaren inguruan antolatu zen eztabaida interesgarrienetako bat, euskal liberelek aurre egin baitzioten eredu berri horren ezarpenari, karlistek (berrez sistema politika berriaren aurkari nagusienak) defendatu egin zuten bitartean, sufragio gaitasuna herri xehean zabaltzea, karlismoaren eragina zela eta, beraienezat mesedegarri izango zela kontsideratzen baitzuten.

Dinamika sozial berriak ireki ziren eskualdean. Ziurrenik urte horietakoak dira eskualdeko lehenengo *meeting*-ak, errepublikarrak hain justu. Anoetako zubiaren alboan Guadalupe paper fabrikaren aurretik egon zen Pa-

risko puntun fabrikako nagusia izan zen errepublikar hauen buru eta sustatzaile, eta sektore politiko honek sortuko zuen lehenbizikoz lerro politiko bati loturiko «Sociedad de Socorros Mutuos» errepublikarra, bizitza laburrekoa. Gipuzkoa osoan bezala, Askatasunaren Boluntarioak ere sortu ziren, iraganean ere existitu zirenak, baina lehen gerra karlistaren (1833-1839) ostean desarmatuak izan zirenak eta testuinguru berrian indartsu agertu zirenak. Soziabilitate herrikoian eragin handia izan zuten. Bertan bilduko ziren Tolosako artisau, fabrika langile eta zenbait baserritar. Orokorrean badirudi norbere ideologiaz haraindi baserri jabearekin edo fabrika nagusiarekin zuten loturak markatzen zituztela adskripzio hauek. Hala, gerra karlistaren testigantzetan irakur dezakegunez, nagusiaren joerak (karlista izan edo liberala izan) pisu zentrala izan zuen bando batekin edo bestearekin joateko. Hauteskundeetan ere hala funtzionatuko zuen eta etorkizunean sufragio unibertsal maskulinoa (eta II. Errepublikan femeninoa) ezarri zenean ere lokarri sozial horrek pisu handia izan zuen. Herri txikiak elite zaharrek ere bi bando hauetan sailkatu zituzten euren buruak. Herrietako bando zaharrek kolore berriak hartu zituzten. Anoetako alkatearen etorkizuneko hilketak ematen digu buru politiko hauen berri, herrietako botere borroken barruan lehendik ere sortuta zeuden bandoen egokitzapena izan baitzen. Zizurkilgo Otañotarrak ere ezagunak dira bando libéraleko kide bilakatu zirelako, edota fabrika patroiek ere ez zioten okasioari alde egiten utziko, Irurako Etxezarreta paper fabrikako burua liberalen ordezkari bilakatu baitzen. Baserri giroko herri hauek konterbadurismo karlistarekin lotzen badira ere, gerra pizten deneko, badugu Askatasunaren Boluntarioen berri Amezketan, Alegian, Lizartzen edota Villabonan besteak beste.

Bertso paperek foruen etorkizunaren inguruko beldurrak adierazten baditu ere, erlijioa izan zen zentralitate politiko handiena hartu zuen gaia. Gehienez foruen galeraren beldurra



Tolosa, 1864an. ATARIA

agertzen den bertso haietan erlijioarekin estuki loturik zeudelako da, Lege Zaharra ez baitzen bestela ulertzen. Erlijio askatasuna kolpe gogorra zen Elizaren interesentzat, iraganeko monopolioa galtzen baitzuen. Matrimonio zibilaren finkapena (eta Erregistro Zibilarena, ordura arte Elizaren esku-

Altzoko Imaz izan zen, gure eskualdean egoera berriaren aurkako bertso zirikatzaileak publikatzen aktiboena

Bertso paperek foruen etorkizunaren inguruko beldurrak adierazten baditu ere, erlijioa izan zen zentralitate

men izan baitzen) urte hauetakoa da eta Estatu eta Elizaren bereizketa sakon honek tentsio giroa areagotu zuen eliteetan. Don Karlos erregegaia eta bere gorteak testuinguru egokia iritzi zion une honi bere saiakera berrietarako. Iraultza liberalari aurre egitea zuen eginkizun printzipal eta auzi horren inguruan antolatu zuen bere bandoa. Bertso liberal batzuek dioten bezala, «haundimendiak ez galtzeagatik lengo influjo ta indarrak, egin dire karlos»arrak. Irekiera liberalaren aurrean euren botereak mantentzeko modu bat izan zen alderdi karlistara elkar-

tzea. Tolosako Zavalatarren kasua paradigmatikoa da. Betidanik liberal moderatu izandako familia boteretsu hark Karlosen aldeko hautua egin zuen. Gainera, Estatu berriak Saboiako Amadeo errege egin izana, Aita Santuari aurre egin zion familiako kidea, kolpe gogortzat hartu zuten botere sektoreek eta Elizak.

Prentsak han-hemenka zebiltzan talde karlisten berri ematen du gerra aurreko urte hauetan. Giroa berotzen zihoan. Xenpelarren profezia laster egingo zen errealitate. Nahiz eta liberala ez izan, gerra berri baten pizteak euskaldunei ekarriko zizkien kalteez hitz egin zuen bere «Iya guriak egin du» bertso sorta ezagunean. Altzoko Imazek ordea aldagatzen beharraz hitz egiten du, libéralei egotzen dizkion basatikeriei (batez ere Elizaren aurka egitea, edota Saboiatarra errege jarri izana) buelta emateko. «Tokatutzen dana guk/nai degu errege,/gañerakuan ez da/posible-ta lege;/ez extranjero eta/kondutarik gabe,/Carlos séptimo betor,/kontentu gerade». Euskal sektore sozial zabalek Karlosengan jarri zuten itxaropena, euren mundu ikuskeraren gauzatzailetzat zuten eta bera ezartzeko gerra ekidin ezineko sakrifizioa. 1872an hasiko zen Tolosaldea lau urtetan goitik behera astinduko zen gerra.



Adunako muinoa iluntzean. JON MIRANDA

ADUNAREN GRAZIA

Hemen duzu Adunak eskaintzen dituen
baliabide turistikoak ezagutzeko gida paregabea

JON MIRANDA

Aduna kokatuta dagoen muinotik Oria ibaiak Tolosaldean zehar egiten duen ibilbidea ikusten da. Ibai bazterreraino jaisten dira herriaren lurrrak, Elbarrena auzoraino. Geroz eta zabalagoa den industriaguneak hartua du gaur egun auzoa, toki estrategikoan baitago kokatuta, errepide eta garraiobideen bazterrean.

Eta koska bat gorago herrigunea. Bertan bizi da adunarren erdia baino gehiago. Ingurune zaindu eta paregabea. Herritarrek eskola, jolas parkea, taberna eta beharreko zerbitzuak dituzte esku-eskura. Hori guztia, mendiz eta landa gunez inguratutako toki batean, mendeetan zehar baserritarrek ondu duten paisaia zoragarrian.

Josu Amilibia, Adunako alkatea

Aduna hobeto ezagutzeko aukera dugu Josu Amilibia alkatearen ahotik: «Gure herria Gipuzkoako probintzian

eta Tolosaldeko eskualdean kokatuta dagoen herri txiki bat da, 471 biztanle ditu. Zizurkil, Andoain eta Villabona-ekin egiten du muga eta alde batetik Belkoain mendia du eta bestetik Oria ibaiaren erribera». Ondo bereizita ditu herriko bi parteak, «ibaiaren erriberan industriagune garrantzitsuak dauzka eta herria bera mendialdearen hasieran kokatuta dago, landa eremuko iza erarekin». Herriaren ezaugarri berezietako bat hizkuntza da, «ia osotasunean herri euskalduna da, bai historikoki eta baita gaur egun ere».



Josu Amilibia J.M.

Herritar gehienek eta administrazioak euskara hutsean funtzionatzen dute.

Zergatik bisitatu Aduna? Amilibiak badu argudio bat baino gehiago: «Herri euskaldun tipiko bat delako, landa eremukoa. Berezitasunak ere baditu gastronomikoki, sagasti eta sagardotegien inguruan dituen ohiturengatik». Donostiatic eta kostaldetik 18 kilometrotara kokatuta dago eta bederatzira Tolosatik. «Jakinik Gipuzkoan turismoa garrantzitsua dela, kostaldetik aparteago ikusteko moduko gauza bat da gure herria».

Gastronomiarekin ere kultura transmititzen da Amilibiaren ustez. «Fama handia dute gure sagardotegiek eta diferentziatzen gaitu espezialitate horrek». Arlo gastronomikoaz aparte, mendiko ibilbideak dituzte Adunan, «eskapatatxo bat egin eta naturaz inguratuta gozatzeko prestatuta dauden ibilbideak daude». Behin Adunara gerturatuta Tolosaldeko beste toki batzuk bisitatzeko aukera dago, «hemen dena gertu baitago». Gaua pasatzeko tokiak ere badituzte herrian eta horren adibidetzat jarri ditu alkatetik Uztartza aterpetxea eta Zabale nekazalturismoa.

«Arrazoi guzti hauengatik jendea animatu nahi nuke Adunara etortzeko; goiza, eguna eta astea pasatzeko aukera ematen du, bertan lekutu eta kostaldera edo Tolosaldera begira irteerak egiteko aukera ematen du gure herriak».

Hain gertu eta hain urrun, parte eta aparte. Aduna leku aproposa da lagunartean edo familian une atsegin bat igarotzeko. Baliabide turistiko mordoa eskaintzen dizkio bisitariari. Badi-ra sagardotegiak eta jatetxeak, baina baita lotarako tokiak ere.



Josu Aburuza, Aburuza Sagardotegia

Josu Aburuzak egin digu harrera euren etxean: «Gure aita hasi zen 1979. urtean. Aurretik ere, esan beharra dago, gure aitona zena, baserrian aritzen zela sagardoa egiten. Ez zen dedikazio osoz aritzen, etxeko kontsumorako, bizilagun eta lagunentzako egiten zuen sagardoa». Josuren aitari, beti gustatu izan zaio sagardogintza mundu hori eta berak sortu zuen gaur egun ezagutzen dugun Aburuza sagardotegia: «Pixkanaka hasi zen, baserri ondoan zegoen borda batean lehenengo hiru urteak eman zituen eta gaur egun dagoen kokalekura pasa zen gero».

Jangela handi bat dute 300 lagunentzako eta kafetegi bat ere egina dute 150 lagunentzako. Hasieran, txotx garaiak bakarrik zabaltzen zuten sagardotegia baina gaur egun ia urte osoan dute irekita Josu Aburuzak nabarmentzen duenez: «Abenduan bakarrik ixten dugu, udaran eta udazkenean ere irekita egoten da eta sagardotegiko menua eskaintzen dugu. Sagardoa txotxetik zerbitzatzen dugu urte osoan zehar».

300 bat mila litro inguru ekoizten dituzte urtean Aburuza sagardotegian: «Ez da urtero berdina izaten. Bertan zenbat sagar dagoen kontuan hartu behar da. Urtetik urtera bertako sagarrarekin geroz eta gehiago egiten

dugu lan. Sagasti asko aldatu ditugu azkeneko urteotan eta sagasti berri horietako batzuk hasi dira uzta ematen». Gainera, bultzatu egin nahi dute sagar autoktono hori, «ahalegina norabide horretan doa».

Aburuza Sagardotegian ekoizten den sagardo kopuruaren %15 inguru kontsumitzen da txotx garaiak upelatik, jangela bertan. Gainerakoa botilaratu egiten dute: «Bertako jendearekin egiten dugu lan gehienbat, probintziakoarekin. Azkeneko urteotan txotx denboraldi hori asko hazi da eta kanpotik jende asko etortzen da. Udan berri, madrildar eta katalanak ugartzen dira eta baita hona oporretara etortzen direnak». Interesa agertzen du kanpoko jendeak, «ezagutzen ez duten produktua da beraiantzat eta bisita gidatuak egiten ditugu sagardoa egiteko prozesua nolakoa den jakiteko», dio Aburuzak. Bertako jendearentzat ere interesgarria ere suerta daitekeela dio sagardogileak.

Aduna herri txikia da eta «txotx denboraldian, herriko biztanleria bikoiztu egiten da». Bi sagardotegi dauka herrian eta jende asko dator kanpotik, «bizia ematen diogu herriari», azpimarratu du Aburuzak.



Aburuza sagardotegian 300 bat mila litro sagardo inguru ekoizten dituzte urtean. JON MIRANDA



Zabala sagardotegia. JON MIRANDA

Luis Zabala, Zabala sagardotegia

Zabala sagardotegian egin dugu hurrengo geldialdia eta Luis Zabala bertako semearekin jarri dugu hitzordua. «Bi anaien artean eramaten dugu hau, dedikazio eksklusiboarekin. Aita, aitona eta gizaldi mordoa izango dira sagardogintzan gabiltzanak. 30 urte hauetan ganadu giroa utzi eta sektore honi lotu gatzazkio erabat».

Lehenago ez zen oraingo giroa egoten. «Sagardoa botilan erosi nahi zutenentzat egoten ziren zabalik sagardotegiak. Botilaratze garaian, beraientzako, elkarterako edo jatetxerako behar zuten eskaera egiteko gerturatzten ziren bezeroak sagardoa dastatzera. Jana ere bezeroak ekartzen zuten sagardotegira», Zabalaren esanetan.

Etxeko lurrekin eta alokatzen dutenekin zortzi bat hektarea sagarrondo landatzen dituzte Zabalakoek. Uzta ona denean, «gure sagarrarekin eta inguruko baserritarrei erosten diogunarekin 200 mila litro ekoizteko gai gara», dio Zabalak. Uzta erdipurdikoa denean, Asturias, Galizia eta Frantziatik ekartzen dute sagarra.

Txotx garaian kupeletik dastatzeko ematen dute sagardoa, baina Zabalak adierazi duenez, «beti ere botilak duen kalitateari begira». Maiatza arte irauten du denboraldiak eta sagardoa upelean zaintzen ahalegintzen dira. «Martxoako asteburuetan batzen da gehienbat jendea. Bospasei asteburutan pilatzen da jendea».

Bertako bezeroak dituzte Zabala sagardotegian eta «errepikatzen dutenak ere bai, hamabostean behin lagu-

nekin edo familiarekin etortzen direnak, alegia. Jende berdintsua ibiltzen dugu, urtez urteko bezero fidelak dira horiek».

Denetarik egin behar dutela esan du Zabalak: «Bezeroari harrera egin, produktua salarazi, eskaini, erakutsi, sagardoaz hitz egin. Jendeak ere galdeztzen du sagardoaz eta sagarrak». Bizkaia eta Arabatik jende asko gerturatzen da eta «Aduna neurri batean sagardotegiei esker ezagutzen dute; bizi handia ematen diogu herriari».

Aloña Yarza, Zabale nekazalturismoa

Zabale nekazalturismoa 1990. urtean jarri zen martxan. Bertako semearekin ezkondu zen Aloña Yarza eta buelta bat eman zioten negozioari 2002. urtean: «Obra bat egin genuen. Aurretik hiru gela zeuden nekazalturismoan konpartitzeko komun bakarrarekin eta sukalderik ere ez zegoen. Lanak

egin genituenean, bi gela osatu genituen –bakoitza bere komunarekin– eta sukalde bat ere jarri genuen».

Apartamentu bezala alokatu daiteke Zabale nekazalturismoa eta jende gutxiago ibiltzen den garaian gelaka eskaintzen dute zerbitzua. Yarzak azaldu duenez, «uda partean, uztaila eta abuztuan oso ondo egiten dugu lan. Zubiak eta Gabonak direnean ere puntako datak izaten dira okupazioari begiratuta». Udazkena eta udaberrian ez da hainbeste jende ibiltzen eta gelaka egiten dute lan Zabalekoek.

Apartamentu bezala alokatzen dutenean, sukaldea erabiltzeko aukera dute bezeroek eta etxeok ez dute, beraz, gosarik eskaintzen. «Nekazalturismoa gelaka erreserbatzen dutenean, gosaria jasotzeko aukera ematen diegu».

Gehienbat estatutik gerturatzen da jendea Adunako nekazalturismoa. «Krisiaren hasieran, nazioarteko jende asko gerturatu izan zaigu. Iaz, adibidez, Californiatik eta Europatik ibili zuten jende gehien: Belgika, Alemania, Errusia, Ingalaterratik etorri izan da jendea».

Zer gustatzen zaie gehien? Paisaia aipatu du, zalantza gabe, Aloña Yarzak: «Hain gertu eta hain urruti mendia ikustea beraientzat liluragarria da. Hemen atzean Ernio dugu eta harrিতa geratzen dira distantzia txikian zeinen mendi altuak dauden ikustean». Lasaitasuna eta isiltasuna ere gustuko dute bisitariek, «goizetan txori kanteekin esnatzea asko eskertzen dute».

Goizean jaiki, gosalduta, kotxea hartu eta kanpora joaten dira bezeroak egun pasa. «Donostia eta kosta urruti dagoen galdetzen digute. Txindoki ingurua eta Ordizia eta Tolosako azoken ingu-



Zabale nekazalturismoaren ardura du Aloña Yarzak. JOANES IMAZ

ruan ere aritzen zaizkigu». Informatuta etortzen da, ordea, bisitaria. Yarzak herrira jaisteko gomendioa luzatzen die bezeroei, bertako sagardotegietan afaltzeko; «badago jendea urtero-urtero etorri, Zabala edo Aburuzan afaldu eta hemen lo egiten dutenak».

Idoia Aramendi, Uztartza aterpetxea

Astelehenetik ostiralera eguneko menua, asteburuetan asteburukoa, karta, plater konbinatuak, ogitartekoak, pin-txoak... eskaintza guzti hori egiten du Uztartzak Adunan. Aterpetxe funtzioa ere egiten du bertako langile Idoia Aramendik azpimarratu duenez: «Udalarena da aterpetxearen jabetza eta guk alokairua ordaintzen dugu. Baldintza plegu batzuk daude eta horiek bete behar izaten ditugu esleipendunok».

Otorduak egitera langile jendea etortzen da gehienbat, astegunean behintzat. «Asteburuetan, berriz, familia asko gerturatzen da umeekin. Jolastokia eta frontoia ere bertan daude eta oinezkoentzako prestatuta dagoenez herrigunea, ez dabil autorik eta segurua da umeentzako». Mendi buelta bat egin ondoren gerturatzen direnak ere izaten dira eta baita sagardotegitik bueltan datozenak: «Afaldu eta gaua pasatzen dute aterpetxean», dio Aramendik.

Aterpetxearen zerbitzua eskola umeentzako eskaintzen dute. Pare bat egun pasatzen dituzte bertan eta gosaria, bazkaria eta afaria Uztartzako langileen esku geratzen da. Aramendik nabarmendu duenez, «eskolak hemen



Angel Mari Sarasuarena da Urritza jatetxearen gidaritza. JOANES IMAZ

gertukoak dira, baina sagardotegietara jende asko etortzen da kanpotik. Iaz, adibidez, errugbian ibiltzen diren ingeles batzuk etorri zitzaizkigun». Tabernan, ordea, herrikoak ibiltzen dira gehienbat, Adunako taberna bakarra baita Uztartza: «Haur, heldu eta aiton-amonentzako bilgune bat da».

Anjel Sarasua, Urritza jatetxea

1996. urteaz gero dago martxan Oria ibaiaren erriberan kokatuta dagoen Urritza jatetxea. Bertako jabea da Anjel Sarasua: «Zizurkilgo Pagamuñon zegoen kokatuta familiako aurreko sagardotegia, baina hura bota egin zuten eta bizimodu hau gustatzen zitzaidanez nik segi diot tradizioari. Ia 20 urte daramatzagu kokaleku honetan, pabiloi artean».

Gehiena eguneko menua eskaintzen dute Urritza jatetxean. Lantegi inguruan kokatuta dagoenez langile jendea izaten dute bezero nagusi eta «eguneko menuarekin batera, menu berezia eta plater konbinatuak eskain-

tzen ditugu. Bazter guztiak ukitzen ditugu».

Duela bost urte arte 150-180 bazkari ematen zituzten egunero, baina krisiarekin batera %40 inguru jaitsi da lana Sarasuaren esanetan. «Poligono berri bat egiten hasiak dira eta ea horrekin indartzen den gure jarduna, esperantza horretan gaude».



Enrike Goikoetxea. JOANES IMAZ

Enrike Goikoetxea, Uparan sagardotegia

Enrike Goikoetxea Uparan sagardotegiko arduraduna da. Duela bost urte zabaldu zuten jatetxea eta eguerditan 30-40 menu ematen dituzte, «inguruko langileei batez ere, eguneko menuak, plater konbinatuak, ogitartekoak eskaintzen dizkiegu».

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etan irekitzen dute jatetxea eta 16:00ak arte egoten da zabalik Uparan industriagunean kokatuta dagoen jatetxea.

Hauek dira, Adunak eskaintzen dituen baliabideak. Gozatu nahi dituenak badaki nora joan. Bizi Aduna!



Adunako hiribilduan topa daiteke Uztartza aterpetxea. JON MIRANDA

Agenda

OSTIRALA, URTARRILAK 22

ALEGIA

ANTZERKIA

22:00. *Oroitzak-penak*, Joseba Usabiaren eskutik.

ANOETA

FILMLABURRAK

15:00 eta 22:00. Emakumeak film laburren bilduma. Mikelasagasti auditorioan.

KOMEDIA GAUA

21:30. Ivan Reyk eskainitako komedia gaua. Doan. Arkupen.

BERASTEGI

MUSTXAPELKETA

22:00. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa. Urepelen.

IKAZTEGIETA

MUSTXAPELKETA

22:30. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa. Ostatuan. Izena ematea 22:00-22:30 artean.

LARRAUL

MUSTXAPELKETA

22:00. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa. Herriko ostatuan.

TOLOSA

SAMANIEGOKO KULTUR ASTEA

17:30. Hitzaldia Marian Moreno hezkidetzak eta berdintasun adituaren eskutik, Topic zentroan: *¿Cómo hemos cambiado! ¿O, no?*

KONTZERTUA

22:30. Lagrimas de Sangreren kontzertua (Bartzelona). Bonberenean.

IKASGELA

Unibertsitateko ikasleentzat ikasgela zabalik azterketa garaian. Astelehenetik ostiralera. Gazte Topagunean, kultur etxeko 1. solairuan.

ELKARTASUN AZOKA

Amarotzeko elkartasun azoka. Urtarrilaren 23a arte. Kultur etxean.

ZIZURKIL

KZ GUNEA

18:00-20:00. Dinamizatzailearen bisitaldia.



ATARIA BERTSO JAIALDIA 2016

Urteroko bertsozaleen zita bihurtu da Leidorrekoea. *Txolarre* irratiak abiatutako ekimena hartu zuen bere gain ATARIA-k, komunikabidea sortzeko orduan. Larunbatean, 18:00etan, Leidorren, Amaia Agirreren aginduetara izango dira bertsolariak. I. URKIZU

LARUNBATA, URTARRILAK 23

ALEGIA

MUSTXAPELKETA

15:30. Euskal Herriko Mus Txapelketa. Hilario tabernan.

KONTZERTUA

22:30. Izeberg eta Odolaren Mintzoa. Gaztetxean.

AMASA-VILLABONA

KANTU AFARIA

17:30. Pilota jaialdia Peio Ugalderekin omenez Bearzana pilotalekuan.
20:30. Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaran. 20 euro. Beharzana elkartearen.

IBARRA

UZZURPEKO KULTUR ASTEA

15:00-18:00. Puzgarriak Belabietan kiroldegian.

18:00. Txokolate jatea plazan.

LIZARTZA

INAUTERIAK

12:00. Inauteriei hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan direla.

Ondoren. Antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia.

19:00. Kantu poteoa herriko inauteri kantuak abestuz.

ORENDAIN

ZARENA ZARELAKO FESTA

2015ari agur esan eta 2016ari ongi etorria emateko festa.

Arratsaldean. Merendola Orendaingo umeentzat eta ongi etorria, 2015ean herrian jaio diren lau umeek.

19:30. Poteoa ostatuan.

Segidan. Afaria Eltxo elkartearen.

Ondoren. Festa: Rantxerak, jazz, Xapre eta bere trikitixa, karaokea.

TOLOSA

NORDIC WALKING

09:00-12:00. Oinarrizko ikastaroa. Bastoiak utziko dira. 30 euro. Izena emateko: 675 701520. Usabal kiroldegiko aparkalekutik.

HIRUKIDEN KULTUR ASTEA

10:30-12:30. Ate irekien jardunaldia San Frantzisko pasealekuko eraikinean, Hirukide Jesuitinetan.

LASKORAINGO KULTUR ASTEA

11:00. Ezagutu Laskorainate irekien jardunaldia, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, Sakramentinoen eraikinean.

SAMANIEGOKO KULTURASTEAK

11:00–13:00. Ate irekien jardunaldia Samaniego ikastetxean.

KONTZENTRAZIOA

12:00. TOPA-ren prentsa agerraldia eta kontzentrazioa kultur etxean.

ATARIA BERTSO JAIALDIA

18:00. TOLOSALDEKO ATARIA-K antolatutako bertso jaialdia. Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Unai Mendizabal. Gai jartzaila: Amaia Agirre. Leidorren.

IKUSKIZUNA

20:00. Joxean Orbegozoren *Grandes éxitos*. Irakurri 14–18 orrietako elkarrizketa.

KONTZERTUA

22:30. Anger eta Eratu. Bonberenean.

IGANDEA, URTARRILAK 24

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:00. *Herriak*. Txalo produkzioak. Zuzendaria: Begoña Bilbao. Aktoreak: Kandido Uranga, Joxe Ramon Soroiz eta Ramon Agirre. 12 euro. Gurea antzokian.

LIZARTZA

MUSTXAPELKETA

17:00. Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa. Joxe Mari tabernan.

TOLOSA

KONTZERTUA

11:30. Tolosako Musika Bandaren kontzertua. Iurramendi egoitzan.



EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

Asteburuan eskualdeko hainbat eta hainbat herrietan Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak jokatu dira. Ostiralean, Berastegin, Ikaztegieta eta Larraulen; larunbatean, Alegian eta Igandean, Lizartzan. E.MAIZ

ASTELEHENA, URTARRILAK 25

AMASA-VILLABONA

FLEMINGO KULTURASTEAK

11:00. Aiton amonak eskolara kontu kontari. Arratzaingo eskolan.

17:00. Arroako eskolaren paretaren margotzea.

18:00. Txokolatada, Arroako plazan.

ERAKUSKETAK

JOLASA ETA TXOTXONGILOAK.

Tolosa, Topic. Martxoaren 6ra arte.

KULTURTRUK.

Artistaren eta artelana eskuratzen duen pertsonaren artean, baina dirurik erabili gabeko trukea. Urtarrilaren 28a arte. Aranburu jauregian.

ZINEMA

LA NOVIA

Urtarrilak 22, ostirala (20:30); urtarrilak 24, igandea (19:30 eta 22:00). Tolosa, Leidor.

MACBETH

Urtarrilak 23, larunbata (22:30) eta urtarrilak 25, igandea (20:30). Tolosa, Leidor.

¿DÓNDE ESTÁ NOE?

Urtarrilak 24, igandea (17:00). Tolosa, Leidor.

TOLOSA

LASKORAINGO KULTURASTEAK

18:00. Ezagutu Laskorainate irekien jardunaldia, DBHn, Usabalgo eraikinean.

SAMANIEGOKO KULTURASTEAK

18:00. Ate irekien jardunaldia Orixe institutuan. Bertan, eraikin berriaren informazioa eskainiko dute.

ODOL EMAILEAK

18:00–20:30. Gipuzkoako odol emaileen hitzordua.

ileapaindegia? tailerra? optika? jatetxea? albaitaria?...
Topatu behar duzuna!
Eskualdeko zerbitzuak
www.ataria.info

BERRIA TALDEAK MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA BEHAR DU (Erref:16-MKT)

BERRIA-n marketin lanen planifikazioa, inplementazioa eta jarraipena egingo duen pertsona baten bila gabilta.

Eskaintzen da:

- Lan kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainen.

Eskatzen da:

- Marketin arloko ikasketak.
- Marketin digitalari lotutako ezagutza zabala: sare sozialak, SEO, SEM, Google Analytics, ROLaren neurketa...
- Diseinu grafikoko programen ezagutza (Illustrator, Photoshop, InDesign).
- Idatzizko komunikaziorako gaitasuna.
- Gutzienez EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Marketin arloko lanetan esperientzia baloratuko da.

Interesa duenak bidali curriculuma otsailaren 3a baino lehen, erreferentzia zehaztuta, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.net

Txotx



TXOMIN AZPIROZ
HARITUZ-EKO
KIDEA

*Hemen dira txotx, apar ta
sagardoaren txinparta. (bis)
Ze edari aparta,
ez txotxetik aparta!
Busti zagun eztarria...
Gora sagardo berria!*



Doinua

la guriak egin du

Ni banaiz nor (II): Eskaintza behartua

Aurreko zutabeen hitz egin genuen, pertsonak erabilgarri sentitu behar izaten duela. Bestearentzako erabilgarri izatea garrantzitsua dela auto-estimarako.

Hain da garrantzitsua erabilgarri sentitzea, ze, mesedea obligazio bilakatzen baita sarri. Besteari zerbait eskaintzen diogunean, sarritan ez dakigu ezezko erantzuna jasotzen.

Baina, eskaintza benetako eskaintza bada, besteak erabakiko du hartu ala ez hartu. Guk maitasun guztiarekin eskaini diogu, baina, besteak maitasun guztiarekin hartu beharko luke, edo bestela, ez luke hartu behar. Eskaintza, maitasun keinua baita.

Gaur egunean ez dakigu ezezko erantzuna jasotzen, ordea. Irudiaren eta itxuraren gizartean bizi garenez, garrantzitsuagoa da sentitzen duguna barruan gorde eta bestearekin ongi geratzeagatik, ez-garenaren itxura ematea. Garrantzitsuagoa da benetan maitatzea baino, maite dugunaren itxura ematea.

Eskaintza, sarri, demostrazio bilakatzen da. Eskaintzarekin zenbat baliogun erakutsi nahi izaten dugu. Baina, nik erakutsi BEHARRA sentitzen badut, ez naiz guztiz pertsona osoa eta hutsune hori betetzeko eskaintzen dut; emanez, jasoko dudalako.

Egiazki, hori baino gauza ederragorik apenas dago: emanez jaso. Eta berdin du beharragatik ala (soilik) nahi duzulako eskaintzen duzun, berdin du eskaintzean pertsona oso zaren ala ez-oso. Onartu behar duzuna, bestea aske dela proposamena onartzeko, ala ez onartzeko.

Eta agian keinua eskertuko du, baina ez du behar. Eskaintzetan ez baita garrantzitsuena zer eskaintzen den edo onartzen ote duen; baizik eta, 1) eskaintzearen keinua; 2) hartzaileak keinua sentitzea eta 3) hartzaileak keinuari erantzutea. Hau da, garrantzitsuena komunikazioa da.

Eta komunikazioa badago, maitasuna ere, gertu ibiliko da



IMANOL ARTOLA, FELIX
FILOSOFO ETA
ANTZEZLEA

Gaur egunean ez dakigu ezezko erantzuna jasotzen, ordea. Irudiaren eta itxuraren gizartean bizi garenez, garrantzitsuagoa da sentitzen duguna barruan gorde eta bestearekin ongi geratzeagatik, ez-garenaren itxura ematea.

KOMIKIA OSKARTENA

ZOZOAK



Eta hala jarrai dezala

Bihar plana badugu eskualdeko bertsozaleok. Azken urteetako usadioari jarraiki, ATARIA-k antolatutako bertso jaialdia hartuko du Leidorrek asteburu honetan.

Hedabidearen alde egiteko eta zaletasun bera konpartitzen duten herrikideak bildu eta bertsolaritzaz disfrutatzeko aukera emango digu, beste behin, saioak.

Beste behin, bai; jada seigarren urtez. 2010ean egin zen lehen aldiz, orduan ere urtarrilaren 23an. *Txolarre* irratia ren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldiak biribiltzeko saioa izan zen hura, Zizurkilan, Alegian zein Tolosan egin ziren beste saio batzuen ondotik. Ahalegina egin zen saio hura antolatzen eta oihartzuna



AMAIA GOIKOETXEA AZPEITIA
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN LIZENTZIADUNA

zabaltzen. Antolatzaile gisara orduan, esperientzia ederra izan zen, emaitza emankorraz gainera bidea ere aberatsa izan zelako; han eta hemen kartelak pegatzeko estrategia onenetan trebatzeaz aparte, neu ere bertsozaletu nindutelako Leidorreko zein aurreko saioek.

Ikusle eta atarikide moduan gozatzen dut orain saioa, lehenengo urte haietan bidelagun izan ziren lagun handiekin. Eserlekuan jarri eta duela zenbait urte *Txolarre* irradian sinesten genuenok ereindakoak oraindik ere ATARIA-rekin eta bertsozaleei esker jarraipena duela ikustek zirrara eragiten du. Eta hala jarrai dezala: eskualdean dugun proiektuan sinesten dugunaren keinu eta baita bertsozaletzeko bide ere.

Antolatzaile gisara orduan, esperientzia ederra izan zen, emaitza emankorraz gainera bidea ere aberatsa izan zelako; han eta hemen kartelak pegatzeko estrategia onenetan trebatzeaz aparte, neu ere bertsozaletu nindutelako Leidorreko zein aurreko saioek.

EGURALDIA



OSTIRALA

Gaurkoan giroa zertxobait moteldu egingo zaigu. Goizean oraindik orain giro nahiko argia izango dugu. Hego haizea ibiliko zaigu egun osoan zehar, eta horrekin tenperatura epela izango dugu urte sasoi honetarako (14-15 gra-

du). Goizean hodeiak eta ostarteak izango ditugu, giro polita izango dugu, baina tarteka hegaldetik zaparrada txikiren bat sartuko zaigu.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Goizean oraindik zerua estali samar

agertuko zaigu, tantaren bat edo beste bota dezake. Euria ez da protagonista izango. Eguerditik aurrera erabat atertuko du, ostarteak zabalduko dira eta hego-haizeak indarrez joko duenez, tenperatura zertxobait gorago geratuko da (16-17 gradu). Oso giro polita geratuko zaigu.

IGANDEA

Eguraldi polit honek bere jarraipena izango du igandean. Hodei gehiago ikusiko ditugu, erdi eta goi mailako hodeiak izango ditugu. Arratsaldean zerua garbiago azalduko da, hego-haizeak indarra hartuko du. Tarteka bolada nahiko zakarrak joko ditu. Baliteke tenperatura oraindik gehiago igozteaz.

ASTELEHENA

Eguraldi polita izango dugu orokorrean. Arratsalde erdira arte zerua nahiko garbi geratuko zaigu, erdi edo goi mailako hodeiren bat agertuko da. Arratsaldean hego-mendebaldeko haizea zakartuko da; mendebaldetik eta hegaldetik hodei batzuk sartzen hasiko dira. Euririk ez da espero.

OSTIRALA
22



IGANDEA
24



LARUNBATA
23



ASTELEHENA
25



ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.info

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Jarri zorion agurra eta eskaini doan irratian kantu bat!

FARMAZIAK



URTARRILAK 22, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa:

Iturrioz Lete, I.

Euskal Herria kalea, 3.

Telefonoa: 943 67 09 15.

Gauekoa:

Morant, R.

Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

URTARRILAK 23, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa:

Bronte, C.

Korreo kalea, 20.

Telefonoa: 943 67 60 13.

Telefonoa: 943 65 10 40.

Gauekoa:

Morant, R.

Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

URTARRILAK 24, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa:

Azpiroz Galarza, L.

Amaroz auzunea, 9.

Telefonoa: 943 67 51 18.

Gauekoa:

Morant, R.

Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

URTARRILAK 25, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa eta gauekoa:

Morant, R.

Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

IRAGARKI LABURRAK



ARGITARATU ATARIAN ZURE IRAGARKIA

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.info helbidera edo pasa ATARIA-tik: San Esteban 20, Tolosa.

ATARIA IRRATIA



105.0 ETA 107.6

OSTIRALA

09:00. Pasahitza magazina. Eguraldia, solasaldi politikoa (Garbiñe Biurrun eta Maddi Sarasola), Anjel Mari Pañagarikano *Kale kantoitik*, Tolosaldea Garatzen, Quark zientzia saioa, Tolosako azokari eskainitako tarteak, eguneko errezeta eta lehiaketaren atala. Eta saioa amaitzeko, Antton Telleriak proposatutako eguneko abestia.

11:00. Hamaitakoa. Gure eskualdeari asteroko begirada. Gaurkoan, Ibarraldea.

12:00. Entzuteko jaloak musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioak utzitako onena.

LARUNBATA

10:00. Asteak utzitako onena.

Ondoren. Trikitixa.

16:00. Entzuteko jaloak.

18:00. Entzuteko jaloak.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. Entzuteko jaloak.

18:00. Entzuteko jaloak.



URTE ASKOAN GARI!

Garikoitz Ibarluzea Murua

Erbestetik herrira Ibarrek tira eta tira, Euskal Preso, Iheslari eta Deportatuak etxera!!



saridunak

Atarikideentzat **sarrera pare bat** dugu



RETA bet.es
Fiat Joventut

Saskibaloi partida

Urtarrilak 24, igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

- Martin Otegi (Amasa-Villabona)

Sarrerak eskuratzeko **ataria**ko bulegotik pasa

Atarikideentzat **sarrera pare** dugu



ANTZERKI
DANTZA
Joxean
Orbegozo

Urtarrilak 23, larunbata • 20:00etan Tolosako Topic-en

- Jose Antonio Artola (Tolosa)



Sarrerak leihatilan bertan



URTE ASKOAN GARI!

www.ataria.info

107.6 fm · 105.0 fm



2015^{eko} ABENDUAN HASIKO DIRA OBRAK

%60
SALDUTA



1.
SOLAIRUA

1 A: SALDUTA 105m²

1 A: 230.000 €* 108m²

1 B: 210.000 €* 86m²

1 C: 215.000 €* 92m²

2.
SOLAIRUA

2 A: SALDUTA 96m²

2 A: SALDUTA 105m²

2 B: 230.000 €* 96m²

2 B: SALDUTA 86m²

2 C: 185.000 €* 82m²

2 C: ERRESERBATUTA 92m²

3.
SOLAIRUA

3 A: SALDUTA 96m²

3 A: SALDUTA 108m²

3 B: 235.000 €* 82m²

3 B: 220.000 €* 86m²

3 C: 190.000 €* 82m²

3 C: SALDUTA 92m²

4.
SOLAIRUA

4 A: SALDUTA 96m²

4 A: SALDUTA 108m²

4 B: SALDUTA 96m²

4 B: SALDUTA 86m²

4 C: 195.000 €* 82m²

4 C: SALDUTA 92m²

TEILATUPEA A: 210.000 €* 93m²

TEILATUPEA A: SALDUTA 92m²

TEILATUPEA B: SALDUTA 84m²

TEILATUPEA B: SALDUTA 106m²

TEILATUPEA C: SALDUTA 84m²

TEILATUPEA C: SALDUTA 73m²



Finantzaketa



CAJA RURAL DE NAVARRAK finantzatua
Bermatutako kontuei